

Txerri-basurde. Arte irakaskuntza eta haren testuinguruak

IÑAKI IMAZ

Geure buruaren zentsore begirunegabe bihurtu behar dugu

Alain Badiou

Txikitan ikasten dugu txerria eta basurdea familia berekoak direla. Eta horrekin batera irudi bat barneratzen dugu: lehena izaki zikin ergela dela, bere askatasuna defendatzen jakin ez duena, eta bigarrena, alderantziz, ikusten dugu heroi baztertu edo animalia justiziazale baten antzera, beharbada noizbait etorkizunean txerri adoregabea uztarpetik askatuko duena. Familia ideiak (txerri eta basurde hitzen arteko marrak) sineste sendo absurdu sorta bat existitzea ahalbidetzen du. Marra hori ezabatzeak erlazioko termino bakoitza bere kabuz ikusten lagunduko luke. Baina ba al dago benetan ikus daitekeen “norbere kabuzkotasunik”, edo, alderantziz eta ezinbestean, inguratzen gaituen guztia familia erlazio hautsiezina dira? Zer izango zen txerri bat bere kabuz, ez basurdearekin ez beste ezein animaliarekin erlaziorekin izan gabe? Zer izango zen basurde bat?

“Norbere kabuzkotasun” batek erlazionatu beharreko barne bat eta kanpo bat ondorioztatzen badu, eta, beraz, muga batzuk, beharbada ez ezer ez inor ezin izan daiteke gauza bat, definitzen duen familia-testuingururik gabe. Hori bere aldetik existentziaren, edo gutxienez hartaz pentsatzeko dugun moduaren, ezinbesteko baldintza baldin bada, hartutako ondarea gainditzeko eta autokomunikaziotik haratago doan zerbait sortzeko modu posible bakarra gurasoen etxetik urruntzen saiatzea eta harreman ingurune berrietara jotzea izango da.

Horrenbestez, txerriarentzat benetan askatzailea ez litzateke izango ez “benetako” txerria izaten saiatzea ez basurdearenganantz jotzea, baizik eta txerri-katu, txerri-armiarma edo baita txerri-haritz bezalako multzoak osatu ahal izatea. Basurdearen kasuan, haren aukera askatzaileak gauzatzeko ziur aski alde batera utzi beharko luke askatzaile banakoaren izaera imajinarioa eta pentsatu beharko luke agian bihur litekeela, adibidez, inurri edo ardi, izaki taldekoietan taldekoienak, zeinengan identifika zaitezkeen tasun epikorik aurkitzea zaila baita.

Irakaskuntzan, agian hasi beharko genuke geure ikasleei lotzen gaituen marraz kezkatzeari uzten. Haiek ez baitira xalotasunaren, freskotasanaren, askatasunaren, ezjakintasunaren, arduragabekeriaren, ilusioaren, zabaltze kreatiboaren eredu gorena. Gu geu ere esperientziaren, arauaren, akademiaren, jakintzaren, laguntza eskuzabalaren, etsipenaren edo inposaketaren eredu ez garen era berean. Gutxienez 3.000 urte kalkulatu dizkioten adreiluzko oholtxo babiloniarrak honako hau dio: “Egungo gazteria muineraino ustelduta dago, gaiztoa da, atea eta alferra. Ez da sekula izango gazteriak izan behar duena, eta ez da inoiz gure kultura gordetzeko gai izango”. Barneratuta daramatzagun harreman-estereotipoak zailtasun funtsezkoa dira irakaskuntzan.

Informazioak transmititze hutsetik haratago, benetako jakintza-esperientziak ez dira gertatzen, eskuarki, harreman eredu jakin batzuk gordetzen setatzen garenean, baizik eta, hain zuzen ere, nolabaiteko desbideratzea gertatzen denean, lotura berriak sortzera

bultzatzen dutenak. Edozein testuingurutan ezarritako irakaskuntza sisteman edo harreman eremuan nolabaiteko anabasa sortzeko balio duen metodologia guztiek jauzi esanguratsua bultzatuko dute bilakaera teknikoan eta gizabanakoen garapen integralean. Ez naiz irakaskuntza arautuaz ari bakarrik, jakintzaren transmisioa irakasle-ikasle norabide bakarreko bideari jarraitzen dion edozein egoera motaz baizik; beste aldetik, bide hori da nik ezagutzen dudana bakarria. Funtsean erreprimitzaila den hezkuntza erakundearen ideiak, iragan mugiezinean ainguratua (hori da, bederen, gure ingurune hurbilean Unibertsitateaz izaten den ideia), ez ditu gainerako ikastetxeak, edozein motatakoak direla ere, instituzionalizazioaren arrisku funtsezkotik askatzen. Esan nahi dut arriskutsua dela testuinguruak eraikitzea gehiegi idealizatzen baditugu nola haren osagaiak hala testuinguru bera. Unibertsitateak ez dira txerriak, eta basurdeak ez dira existitzen auzi honetan. Arazoa beste nonbait dagoelakoan nago.

Arte irakaskuntzaz ari garenean, azken batean irakaslearen gure posiziotik lagundu egin nahi diegu pertsona jakin batzuei lan “hobeak” ekoizten, “hobe” gisa ulertuta lanak “bere kabuzkotasunetik” haratago joatea eta beste batzuentzat desiragarri bilakatzea. Zerbait “ongi” egiten saiatzen garenean, gauzaren bat edo irudi zehatz bat baino gehiago, errealitatean gure desira Bestearen desira bihurtzea nahi izaten dugu, guk nahi duguna preseski besteek eta nahi izatea, kasualitatez bezala. “Ona”, “zuzena”, “gaur egungoa” bezalako kontzeptuen inguruan ditugun ideia guztiak instantzia goren batera jotzeko geure modua besterik ez da, instantzia horrexek sortzen digun babesgabetasun sentimendutik aska gaitzan. Bilatzen dugu geure desira bizi garen sare sinbolikoan inskribatuta geratzea eta aitortua izatea. Geure duintasuna baliarazten saiatzen gara, nola edo hala irentsiak izan nahi dugu, subjektu izatetik objektu izatera pasatu, disolbatu munduan, haren parte izanda ere erabat txertatuta inoiz sentitzen ez garen komunitatean. Esan genezake ongi lan egin nahi izatea, beharbada, norberaren desira desiratzea dela, eta hori bizitasun sintoma dela, osterantzean esperientzia ororen amaiera besterik ez bailuke ekarriko. Orduan, ongi lan egin nahi izatea maitatzea bezalakoa da. Eta maitatzea, neurri handi batean, maitatua izatea desiratzea da, desiraren objektu izatea desiratzea, beste pertsonari falta zaiona izatea desiratzea, preseski ez daukana izatea eta ordainetan gauza bera ematea, guk ez daukaguna, harenganako gure desira.

Hortaz, irakasleak garen aldetik, saiatzen gara ikasleari laguntzen bere teknika gara dezan “bere kabuzkotasunetik” haratago joan dadin eta beste zerbait bihur dadin, maitatua izatea lor dezan zapaldua gertatu gabe, harreman ideal horiek, existitzen ez diren erduei lotzen duten eta teknika errepikakor eta interesik gabeak erabiltzera kondenatzen duten marra horiek haustea lor dezan. Txerria basurdearengandik askatu nahi dugu, eta alderantziz, bata bestearen ni ideala besterik ez baita, eta hori amarru psikologiko bat besterik ez da, marra posible guztiak barne hartzen dituen botere goren horren aurrean adeitsu agertzeko. Marra ezabatzen irakastea, esaten dena egin nahian (maisuen eta apendizien artean ustez posible bakarria den beste marra hori berritzen saiatuta), kontzientzia hartzea eta, ondorioz, une jakin batean probatutako konponbideak, bai objektuei bai harremanei dagozkienak, erlatibizatzea bilatzen dugu. Saiatzen gara irakasten nola sor daitezkeen objektu eta teknika berrien (hurbilago baitaude desira pertsonaletik) premia eragiten duten testuinguruak bilatzen, dauden testuinguruetarako objektu eta teknikak baino gehiago. Ezagutza, gertatzen baldin bada, marrak lekualdatuta eta harreman berriak sortuta gertatzen da, errealitatea desordenatzean.

Baina irakasleak garen aldetik geure buruari ematen diogun paper askatzaile hori ere ideala da, noski. Horren kontzientzia dugunean, esan dezakegu edozein testuinguru mota egokia gerta daitekeela artearen irakaskuntzan, eta beti zalantzan jartzeko gai izatea dela garrantzitsuena. Batez ere testuingurua garden bihurtzeko arriskuan gaudenean, bakarra edo izan litekeen onena dela uste dugulako.

Iñaki Imaz Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakaslea da.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu